


Euskal AEko eraikuntzaren kostuak % 1,3 igo dira 2021eko maiatzean aurreko hilaren aldean

Aurreko urteko hil berarekin alderatuta (2021eko maiatza, 2020ko maiatzaren aldean), kostuak % 2,1 igo dira

Eustatek landutako datuen arabera, Euskal AEko Eraikuntzaren kostuen indizea % 1,3 igo da 2021eko maiatzean, aurreko hilaren aldean. Urte arteko terminoetan, kostuak % 2,1 igo dira.

Etxegintzaren sektoreko kostuak % 1,2 igo dira hil arteko terminoetan, eta Obra zibilekoak % 2,0. 2020ko maiatzaren aldean, bestalde, prezioak % 2,0 igo dira Etxegintzaren kasuan eta % 2,4 Obra Zibilarenean.

Euskal AEko Eraikuntzaren kostuen indizearen urte- arteko aldakuntza-tasak sektoreka



Iturria: Eustat. Eraikuntzaren kostuen indizea

Aurreko hilabetearen aldean **lehengaien kostuak** % 1,7 igo dira, eta **eskulanaren** kostua, berriz, berean mantendu da (% 0,0). Urte arteko terminoetan, lehengaiak % 2,2 igo dira, eta eskulana % 1,9.

Maiatzean, Etxegintzaren sektoreak % 1,5eko hil arteko igoera izan du bere lehengaien kostuan, eta Obra zibilaren sektoreak % 2,7koa. Urte arteko bilakaeran, Etxegintzako lehengaien kostuak % 2,1 igo dira, eta Obra Zibilekoak % 2,5.

Euskal AEko eraikuntzaren kostuen indizea. Aldakuntza tasak(p). 2021eko maiatza

	INDIZEA	ALDEAREN %	
		m/m-1	m/m-12
GUZTIRA	108,4	1,3	2,1
Eraikinak	108,5	1,2	2,0
Obra zibila	107,9	2,0	2,4
LEHENGAIK	107,8	1,7	2,2
Eraikinak	108,0	1,5	2,1
Obra zibila	107,2	2,7	2,5
LAN-ESKUA	110,2	0,0	1,9

Oinarria 2015=100

(p) behin-behinekoa

Iturria: Eustat. Eraikuntzaren kostuen indizea

Sektoreak kontsumitutako lehengaien prezioei dagokienez, 2021eko maiatzean, 2020ko maiatzaren aldean, honako sektore hauek nabarmendu dira igoeretan: *Petrolioia fintzea* (% 40,8), *Metalurgia* (% 14,9) eta *Material elektronikoa* (% 10,5). Aitzitik, prezioetan murrizketak izan dituzte honako sektore hauek: *Mineral ez-metalikoak* (% 2,6 behera) eta *Makineriaren fabrikazioa* (% 1,0ko jaitsiera).

Urte arteko hazkunde-tasak kontsumitutako lehengaien prezioetan (p). 2021eko maiatza

	m / m-12
A64 SEKTORIZAZIOA	
04 - Ez-metalezko meak	-2,6
07 - Zuraren eta kortxoaren industria	6,3
10 - Petrolioia fintzea	40,8
11 - Industria kimikoa	4,4
13 - Kautxua eta plastikoa	0,0
14 - Produktu mineral ez-metalezkoak	0,8
15 - Metalurgia	14,9
16 - Metalezko artikulak	2,3
17 - Material elektronikoa	10,5
18 - Material elektrikoa	2,4
19 - Makineriaren fabrikazioa	-1,0
22 - Altzarigintza	1,6
24 - Energia elektrikoa eta gasa	5,5

Oinarria 2015=100

(p) behin-behinekoa

Iturria: Eustat. Eraikuntzaren kostuen indizea

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62